

Ebazpena: R053/2023

Espedientea: 29/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 8an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean BFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea zeinek duen AHKESL zergapekoak lurralde erkidean bakarrik 2011tik 2014ra bitartean egindako lan-etekinen atxikipenak egiaztatzeko eta ordainarazteko eskumena. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 29/2017 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- Egoitza fiskala Bizkaian duen enpresa bat da AHKESL, lantoki bakarra duena, eta lantoki horri atxikita dauzka langile guztiak.

AHKESLk BFAn sartu zituen langile guztien lan pertsonalaren ondoriozko atxikipenak 2011tik 2014ra.

2.- 2015eko maiatzaren 5ean, ZAEAREN Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Zerga Kudeaketarako Bulegoak egiaztapen mugatuko prozedura bat abiarazi

zuen, lurralde erkidean bakarrik jardundako langileen lan-etekinen atxikipenen ordainarazpenaren zuzenketa baloratzeko.

2015eko irailaren 18an, behin-behineko likidazioekin burutu zen egiaztapen-prozedura; likidazio horien arabera, ebazten zen Estatuak eskumena zuela Andaluzian bizi ziren eta zerbitzuak lurralde hartan bakarrik eman zituzten langile batzuei zegozkien atxikipenak ordainarazteko.

3.- 2015eko irailaren 29an, ZAEAk BFari eskatu zion aipatutako langileek 2011tik 2014ra egindako atxikipenei dagozkien funtsen bidalketa, 116.728,68 eurokoa guztira.

2017ko urtarrilaren 11n, bidaltzeko eskabidea berretsi egin zen.

4.- 2017ko maiatzaren 4an, BFAk eskaera ezetsi egin zuen, uste zuelako egiaztapen hori ezin zela egin zerga-kudeaketako prozedura baten bidez.

5.- 2017ko uztailaren 4an, ZAEAk inhibitu zedila eskatu zion BFari, eta hark isilbidez berretsi egin zuen bere eskumena.

6.- 2017ko abuztuaren 28an, ZAEAk eskumen-gatazka planteatu zuen; 29/2017 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

7.- Alegazio-idazkian, BFAk azaldu du ez dituela 2011ko lehen hiruhilekoko atxikipenak bidali behar, egiaztapen mugatuko prozedura abiarazi zuenean (2015eko maiatzaren 5ean) haiek egiaztatzeko ZAEAk zuen eskubidea preskribatuta zegoelako.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

Bat. Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Arbitraje Batzordeak 48/2023 Ebazpenean adierazi zuen jada:

Ekonomia Itunak, 7.Bat.a) artikuluan, zerbitzuak ematen diren lekuaren arabera (eta, hala badagokio, atxikitze-zentroaren arabera) banatzen du lan pertsonalaren ondoriozko atxikipenak ordainarazteko eskumena,

baina ez du ikuskatzeko eskumena arautzen, eta, beraz, hasiera batean, administrazio bakoitzak eskumena izango du lana egiteko lekuagatik dagozkiola deritzen atxikipenak erregularizatzeko.

Jakina, ZAEAk ikuskatzeko eskumena badu lan-atxikipenak egiaztatzeko, hori kudeatzeko eskumena ere badu; beraz, tributu-kudeaketako prozedura baten bidez erregularizatu ahal izango du, betiere horrelako prozeduretan dituen mugak kontuan hartuta.

3.- Preskripzioa

BFAk alegatu du 2011ko lehen hiruhilekoa egiaztatzeko Estatuak duen eskubidearen preskripzioa, eta arrazoi du horretan.

Horrez gain, Auzitegi Gorenaren jurisprudenziaren arabera (besteak beste, 2015eko abenduaren 15eko epaia (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2022ko otsailaren 10ekoa (ECLI:ES:TS:2022:596), 2020ko abenduaren 3koa (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28koa (ECLI:ES:TS:2021:372), 2020ko maiatzaren 18koa (ECLI:ES:TS:2020:1010)), administrazio arteko kreditu publikoaren eskubidearen preskripzioa deklaratu behar da 2015eko irailaren 29a baino lau urte lehenago BFARI sartutako atxikipenei dagokienez.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Preskribatutzat jotzea ZAEAk BFAREN aurka duen administrazio arteko kreditu-eskubidea, 2015eko irailaren 29a baino lehen ZAEAN sartutako

atxikipenen bidalketa erreklamatzeko; gainerakoak bidali beharko dira lurralde erkidean bakarrik lan egin zuten enplegatuen 2011tik 2014ra bitarteko lan-etekinen atxikipenei dagozkien heinean.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta AHKESLri.